



EGIN GAITZAKE DIRUAK ZORIONTSU?

Xabier Rentería

Euskal Herriko Unibertsitateko Irakaslea

Ikerketa desberdinek frogatu dutenez, badago lotura ekonomia-aren eta jendearen zoriontasunaren artean. Ongizate materiala handiagoa denean, satisfazio maila altuagoa eman ohi da. 1993an Kyrgyzstanen egin zen neurketa batean, adibidez, zera ikusi zen: zenbat eta diru sarrera handiagoa, zoriontasun gehiago (bakoitzak bere zoriontasun pertsonalari buruz ematen duen iritzia hartzen da indikagailutzat). Zoriontasun eza nabariagoa zen atso eta agureengan, edo langabetu eta dibortzatuengan, baina ez zen korrelaziorik aurkitu zoriontasunaren eta jendearen jeneroa edo ikasketa mailaren artean.

Era berdintsuan, makroekonomiaren mugimenduek gai honetan eraginik badutela zehaztu da. Barne Produktu Gordina handitzen denean, jendearen ongizatea handitu ohi da; eta lehena jeisten denean, halaber egiten du bigarrenak. Hala ere, arrazoia- ren aldaketa eta eraginarena ez dira neurri berekoak: ekonomia txarto badugu, gizartearen galera psikikoak handiagoak dira; eta ekonomia ondo badijoakigu, jendeak ez du bere egoera psikikoa era berean hobetzen. Badi- rudi ekonomiak baldintzatzen gaituela, baina ez beti berdin: ekonomi maila materialean txarto ba- gaude horrek eragin (txar

handia du gugan, baina ondo ba- gaude, eragin (on) txikia.

Norwegian, esaterako, 1985-2001 epean ekonomia asko goratu zen; baina jendearen zoriontasuna ez zen ezta urrundik ere hainbeste hobetu. Egia esan, beste ikerketa batek dioenez, ekonomiak ezer gutxi esaten digu ongizate psikologikoari buruz. 2002an Singapurreko Yew Kwang ekonomilariak, horri buruz idatzita zegoenari errepassoa eman eta gero, zera ondorioztatu zuen: “zoriontasunaren ikerketa berriek diru sarrerek zoriontasunaren %2a soilik azaltzen dutela erakusten dute”.

Halere, makroekonomiari buruzko ikerketa hauek alde interregarri bat azaleratu dute: berdinketa sozialaren aldeko mekanismoek eragin positibo handiak dituzte zoriontasunean. Adibidez, estatu batek langabezi subsidioa jartzen badu bere ekintza sozialen artean, jendearen ongizate psikologikoa subsidioak behar izan ohi duen esfortzua baino askoz handiagoa dirudi.

Beste hitzetan esateko: abertzatsa nahiz txiroa izan, zoriontasunean alde gehiegirik ez. Jabegoak eta diruak izatea ez du ezta urrundik ere alaitasuna eta biziaren gozoa bermatzen, nahiz eta pixka bat bultzatu edo ahalbidetu bai. 2003an Estatu Batuetako gazterian zoriontasun ezaren arrazoiei buruz egindako azterketa batek datu desberdinak erakutsi zituen. Arrazak eta (berriz ere) jeneroak ez zuen horretan faktore gisa jokatzeko. Adinez helduagoa izateak aldiz bai, zenbat eta helduagoa, zorigaiztokoagoa. Baina, kuriosoki, klase sozial altuagokoa izateak zoriontasun maila txikiagoa zekarren.

Beste ikerketa batek erlazionatuta egon daitekeen datu bat azaleratu zuen: zenbat eta diru sarrera handien edo ekonomi maila altuaren nahiak sakonagoak izan, gero eta zoriontasun gutxiago pertsonengan. Dirua edo statusa baino gehiago, hoiekiko dugun jarrera psikologikoa dirudi zoriontasunaren determinatzailea!

Nola ekiditu, beraz, gure alaitasuna diruaren morroi izatea? Nola, aldiz, dirua gure zoriontasunerako laguntza bihurtu? Maslow psikologo ezagunaren “beharren piramidearen teoriari” jarraiki, norbanakoak badu beharren hierarkia bat. Lehen mailan, betebeharrak fisikoak (jakiak, sapaia...). Gero, segurtasuna eta egonkortasuna. Hurrengoan harreman sozialak (adiskidetasuna, maitasuna). Laugarrenean, estima (bestena eta norberarena). Eta azkenik, auto-errealizazioa (aurreko mailaren bati edo “trazendentalitate” maila batekiko begira). Beharren teoria honi aplikatuz, diruak eta jabegoek zorigaiztokoak egiten gaituzte mailaren



bat indartzeko erabiltzen ditugunean. Jarrera hori gailenduz, dirua, aurreko maila ziurtatu eta gero, ondorengo asetzeko beharrezkoa egiten zaigu. Horrela soilik heldu gintezke azken asetzerari, hau da, auto-errealizazioa eta zoriontasunera. **F**